

Jardun biko ereduan arrakasta izateko aholkuak

SBLENDID proiektu osoaren planteamendua elkarlaneko taldekatzeetatik abiatu zen, lankidetzaren oinarri baitziren. Horrela, elkarrizketa- eta sorkuntza-fasean, eta jasotako prestakuntzaren ondoren, parte hartu zuten irakasle gehienak taldetan antolatu ziren, SBLENDID proiektuan parte hartzen zuten pertsona guztientzako baliabide-banku komun batean bilduko ziren zenbait produktu elkarrekin egiteko. Hala, artikulu honetan azalduko da produktu horietako bat: jardun biko ereduan arrakasta izateko aholkuen dekalogo bat.

Gako-hitzak

dekalogo, jardun biko eredua, lankidetzaren, Sblendid

Erakunde baten funtzionamendua zuzena izan dadin pertsona-multzo batek jarraitu beharreko arauak jasotzen dira dekalogo batean. Duela urte batzuetatik hona, enpresetan eta konpainietan ezarri dira langileen arteko giroa hobetzeko. Azpimarratu behar da dekalogo batean idatzitako arauak ez direla jarduera jakin bat egiteko moduari buruzko jarraibideak; aitzitik, arau etikoetan oinarritutako portaerarik onena deskribatzen dute. Jende guztiak dekalogoari jarraitzen badio, gatazka asko saihestu ahal izango dira, eta ziurtatu ahal izango da ordu asko elkarrekin ematen dituzten eta tentsio handiko egoera eta une asko partekatu behar dituzten komunitateek lankidetzan jardun ahal izango dutela eta arrakasta izango dutela ekingo dioten lanean.

Hezkuntzan, kalitatea hobetzeko etorkizun handieneko ikerketa-ildoetako bat da zehaztea ikasgelako zer faktorek laguntzen duten modu eraginkorrenean ikasleek ikas dezaten eta hezkuntza-ekintza nola garatu behar den ikasgelan, helburuak lor daitezen. Adibide ezagunenetako bat honako hau da: *Decálogo para una Enseñanza Eficaz* [Irakaskuntza Eraginkorrerako Dekalogo] (Murillo eta al., 2016).

Hain zabala eta asmo handikoa izan gabe ere, baina ikasleentzako dekalogo erabilgarria sortzeko, elkarlaneko azpialde bat sortu zen SBLENDID proiektuan (Fernández et al., 2021). Galiziako hiru Hizkuntza Eskola Ofizialetako (HEO) zortzi irakasle izan ziren partaide:

- Santiagoko HEOko Laura Iglesias, Diana García eta Marta Portela;
- Coruña HEOko Jesusa Pérez eta Lydia Margarita Sanjuán;
- Vilagarcíako HEOko Carolina Pérez Elena Guerrero eta Marta Gago.



Azpitaldeen lana orientatzeko, CAFIk (*Centro Autnómico de Formación e Innovación*) infografia bat sortu zuen urrutiko lankidetzat antolatzeko proposatzen zituen faseak azalduta; hona hemen faseak:

- hautatutako produktuaren irakurketa edo ikerketa batekin hasia;
- azpataldea osatzen duten pertsonen arteko elkarrizketa ezartzea, produktu hori zer funtziotan kokatzen den zehazteko;
- sormen-prozesuan murgiltzea, askotariko ideien eta proposamenen bidez *-brainstorming* edo *idea-jasa-*;
- hainbat proposamen egin ondoren, iragazketa bat egitea; horrek azterketa kritikoa konstruktibo bat egitea ekarriko luke, hobetzeko;
- produktu bukatuari egitura ematea.

Nabarmendu behar da landutako produktuak, funtzio nagusi baten barruan, honela zeudela sailkatuta:

- funtzio akademikoa;
- funtzio soziala;
- antolamendu-funtzioa;
- funtzio teknikoa;
- funtzio orientatzailea.

Azken horretan sar dezakegu gure dekalogo. 1. Irudian dago CAFIk elaborazio-faseetarako eta funtzioetarako egindako infografiaren irudia aurkezten da.

1. irudia.



Behin produktua eta funtzioa erabakita, ideia-jasaren faseari ekin zion lantaldeak. Fase horretan, kideak CAFIren ikasgela birtualeko foro baten bitartez komunikatu ziren. Zenbait erabaki hartu ziren, hala nola nor izango zen taldearen koordinatzailea, zereginen banaketa eta hasierako formatuak eta edukiak. Gainera, fase honetako alderdi garrantzitsu bat izan zen SBLINDID mintegiaren prestakuntza-zatian partekatutako eredu batetik abiatzea *Claves para triunfar* [Arrakasta izateko gakoak] da haren izena; Malagako HE-Ok jardun biko ereduko ikasleei harrera egiteko gidaren parte da. Gidaren hasiera 2. irudian agertzen da; eta esteka honetan kontsulta daiteke: <https://sites.google.com/eoi-malaga.com/guia-acogida-semipresencial/claves-para-triunfar>.

2. irudia




CLAVES PARA "TRIUNFAR"

¿QUÉ TE RECOMENDAMOS QUE HAGAS?

- **Compromiso personal vs. autonomía:** Una de las principales ventajas que tiene esta modalidad es que dispones de más libertad para organizar tu tiempo de trabajo, eres más autónomo/a. Esto requiere de un mayor compromiso por tu parte.
- **Estudia de manera regular:** Es fundamental que, desde el principio, establezcas tu horario de trabajo semanal. Debes dedicarle entre 4 y 6 horas a la semana, independientemente del horario de clases. Es mucho mejor que dividas ese periodo de trabajo en dos o tres sesiones.
- **Creas un ambiente adecuado de estudio:** Con frecuencia, cuando estamos frente al ordenador, tendemos a distraernos con otras aplicaciones o a rumbarnos en el sofá mientras suena la tele de fondo. Aunque una de las principales ventajas de la modalidad es la flexibilidad de lugar, es decir, el poder estudiar desde cualquier sitio, es importante que gran parte de ese tiempo estés en un sitio cómodo y libre de interrupciones. Llega, por supuesto, si te apetece, lleva en tu laptop los audios o vídeos para seguir practicando.
- **Conoce el aula virtual:** Dedicá unos minutos a conocer el aula, a aprender dónde están las tareas, los materiales y a comunicarte con la profesora. Hemos

Funtsezko alderdien gida hori inspirazio-iturri izan zen Google Docs-eko lankidetzako dokumentu batean ideia propioak garatzeko abiapuntu bat izateko (<https://docs.google.com/document/d/17lp6ZqkjOwAZgx17dIw-4TGxSyyv6sz0rXbexrLVHxBM/edit?usp=sharing>) (ikus 3. irudia).

3. irudia



CONSEJOS PARA TER ÉXITO NO ENSINO SEMIPRESENCIAL

KA104 Escuelas que usan el aprendizaje mixto para dialogar sobre pedagogías interrelacionadas
(Oktubre 2020- Agosto 2022)

- Familiarízate coa aula virtual os primeiros días, comproba onde están os contidos, as tarefas, os foros, etc.
- Le as guías e tutoriais que pon á túa disposición a EOI.
- Organízate ben. Fai un plan de traballo semanal (por exemplo, dúas sesións de 2 horas) a maiores da clase presencial.
- Marca os prazos no teu calendario e respéctaos. Se te retrasas, ponte ao día axiña e evita "atraccións" de traballo.
- Escolle ben o lugar de traballo: que teña boa luz, que sexa tranquilo e que che permita ter todas as ferramentas de estudo á man. Deste xeito poderás realizar as tarefas de maneira máis efectiva.
- Organiza os contidos dixitais do curso no teu dispositivo para un doado acceso e almacenamento dos arquivos e recursos por temas ou categorías.
- Participa activamente no curso e relaciónate cos/as compañeiros/as. Non deixes que a timidez sexa un obstáculo.


Ondorengo prozesua erraza izan zen: taldekide guztiak ohituta zeuden neurri batean edo bestean modu deslokalizatuan lan egitera, eta, beraz, tresna horren bidez lankidetzan aritzea ez zen arazo izan. Aitzitik, eskola bat baino gehiagoko pertsonekin partekatutako baliabidea izateak hedapen eta moldagarritasun handiagoa ahalbidetu zuen hasiera-hasieratik. Izan ere, formatu irekia izatea eta koloretan sailkatzea erabaki zen, aholkuak zenbait kategoriatan biltzeko.

1. taula. Jardun biko ereduaren arrakasta izateko aholkuak

<ul style="list-style-type: none"> • Ohitu zaitez ikasgela birtualarekin lehenengo egunetan, egiaztatu non dauden edukiak, zereginak, foroak eta abar. 	Ezer baino lehen
<ul style="list-style-type: none"> • Irakur itzazu HEOK zure esku jartzen dituen gidak eta tutorialak. 	Lan-ingurunea
<ul style="list-style-type: none"> • Ondo antolatu zaitez. Egin ezazu asteko lan-plan bat (adibidez, 2 orduko bi saio), aurrez aurreko eskolaz gain. • Markatu epeak zure egutegian eta bete itzazu. Atzeratzen bazara, jarri eguneari azkar, eta saihestu "lan-betekadak". 	Aurrez aurreko eskolak
<ul style="list-style-type: none"> • Aukeratu ondo lantokia: argi ona edukitzea, lasaia izatea eta ikasteko tresna guztiak eskura izatea. Horrela, modu eraginkorragoan egin ahal izango dituzu zereginak. 	Antolaketa
<ul style="list-style-type: none"> • Antolatu kurtsoaren eduki digitalak zure gailuan, fitxategiak eta baliabideak erraz eskuratu eta biltegitatu ahal izateko, gaika edo kategoriak. • Parte hartu aktiboki kurtsoan, eta jarri harremanetan ikaskideekin. Ez utzi lotsari oztopo izaten. • Izan adeitsua eta zaindu manerak, bai plataformako komunikazioetan, bai eskola presentzian. • Eskatu laguntza. Erabili foroak eta bidali mezu bat zalantzarik izanez gero. 	Izaki sozialak gara
<ul style="list-style-type: none"> • Joan zaitez erregularitasunez eskola presentzietara, ikaskideekin interakzioa ahalik eta gehien aprobetxatzeko. • Gogoratu, eskola presentzietan ahalik eta etekin handiena ateratzeko, eguneari izan beharko duzula ikasgela birtualeko lana; izan ere, edukiak beti lotuta daude, eta elkarren mendekoak dira. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Izan puntuala zereginak entregatzean. Garrantzitsua da zeregin horiek epearen barruan egitea, zure ikaskuntza hobeto kontrolatzeko. • Berrikusi zure posta elektronikoa, informazio edo mezu garrantzitsurik ez galtzeko. • Ezar itzazu helburu errealistak, konpromisoa hartu horiek betetzeko, eta, betetzen dituzunean, zure burua saritu. Motibatuta jarraitzen eta zure aurrerapena ikusten lagunduko dizu. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Kurtsoa hasi aurretik, egiaztatu behar dituzun baldintza teknikoak eta online baliabideak, eta eguneratu azken bertsiara. 	
<ul style="list-style-type: none"> • Ez amore eman eta ez galdu motibazioa! Ahal duzu! 	

Egindakoa oso baliagarria izan zitzaion Vilagarcíako HEOrri produktu eratorri bat bideo-formatuan egiteko; produktu hori, testu-formatuko dekalogo bezala, ingeleseko B2.1 mailako jardun biko ikastaroa sustatzeko erabili zen 2021-2022 ikasturtean. 4. irudian bideoaren hasieraren irudi bat ageri da, zeina osorik ikus baitaiteke hemen: <https://view.genial.ly/60be3375385c9c0d4d949326/video-presentation-consellos-exito-semipresencial-sblendid-produto-final>

4. irudia



Jakina, bi produktuak SBLENDID proiektuko kideen eskura jarri ziren, atzerriko hizkuntzetan jardun biko irakaskuntza zuten beste zentro batzuen beharretara eta errealitate-erara egokitu ahal izateko, txantiloien bidez.

Itzultzailea: IVAPEko Itzultzaile Zerbitzu Ofiziala

Bibliografia eta erreferentziak

CAFI. (d. g.). *Fases. Produtos Propostos*. [Infografía].
<https://www.edu.xunta.gal/centros/cafi/aulavirtual/mod/resource/view.php?id=65031>

EOI Málaga (d. g.). *Claves para triunfar*.
<https://sites.google.com/eoimalaga.com/guia-acogida-semipresencial/claves-para-triunfar>

EOI Vilagarcía de Arousa. (2021, ekainaren 7a.). *Consellos éxito semipresencial. Sblendid produto final* [Bideoa]. Genial.ly.
<https://view.genial.ly/60be3375385c9c0d4d949326/video-presentation-consellos-exito-semipresencial-sblendid-produto-final>

Fernández González, M. D., Pastoriza, D. eta Eizaguirre Santillán, A. (2021). Proyecto SBLENDID. Hacia una comunidad de aprendizaje en el marco de la modalidad semipresencial. In M. C. Romero García & O. Buzón-García (Ed.), *Innovación e investigación docente en educación: Experiencias prácticas* (702- 720. or.). Dykinson

Murillo, F. J., Martínez Garrido, C., eta Hernández-Castilla, R. (2016). Decálogo para una Enseñanza Eficaz. *REICE. Revista Iberoamericana sobre calidad, eficacia y cambio en educación*, 9(1).
<https://doi.org/10.15366/reice2011.9.1.001>